

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018-19

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBEKOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BATXILERGOA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	KULTURA ZIENTIFIKOA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	HIZKUNTZA, MATEMATIKA, ANATOMIA, FISIKA-KIMIKA ETA BIOLOGIA-GEOLOGIA		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	1.Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia 2. Matematikarako kompetentzia 3. Zientziarako kompetentzia 4. Teknologiarako kompetentzia 5. Kompetentzia sozial eta zibikoa 6. Arterako kompetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Hugo Blanco Matxalen Abando	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018/19

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Ikerlan dokumentalak eta/edo esperimentalak diseinatzea eta egitea, lan zientifikoaren metodologia aplikatuz, haien garapena balioetsiz eta emaitzak interpretatuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Denetarikko informazio-iturriak kontsultatzen ditu, zenbait formatutan. • Datu esperimentalak edo kontsultatuak biltzen, antolatzen eta interpretatzen ditu, eta hipotesia baieztatzeko edo ezeztatzeko azalpen arrazoiak ematen ditu. • Norberaren ondorioak berregiten ditu, zenbait iturritatik lortutako informazioak abiapuntu hartuta.

2. Lan zientifikoaren bidez garatzea lan zientifikoaren oinarriko estrategiak eta jarrerak.

3. Iritzi propioa izatea eta hizkuntza zientifiko egokia eta testuinguruarekin bat datorrena erabiltzea, lan dokumentalaren eta/edo esperimantalaren emaitzekin lotutako monografiak eta txostenak egitea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz, eta hainbat iturri eta denetarioko euskarriak erabiliz.

4. Laborategiko edo landako oinarriko materiala eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak behar bezala erabiltzea.

- Txostenak egiten ditu, laburpen gisa, behaketetatik edo esperimentuetatik ondorioak ateratzeko.
- Ikerketaren emaitzak koherentziaz eta argitasunez jakinarazten ditu, askotariko bitarteko digitalak, idatzizkoak edo ahozkoak erabiliz.
- Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
- Talde-lanaren aldeko jarrera adierazten du, zereginetan lankidetzaz eta parte-hartze arduratsuko jarrera agertzen du, eta desberdintasunak pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziaz onartzen ditu.
- Eztabaidetan aktiboki parte hartzen du, arrazoiak emanez eta besteen txandak eta iritziak errespetatuz.
- Eguneroko lanean zorrotasuna, sormena, espiritu kritikoa, zalantza sistematikoa, malgutasuna eta iraunkortasuna erakusten ditu.
- Informazioa askotariko iturrietan eta zenbait formatutan kontsultatzen, bilatzen eta identifikatzen du.
- Informazioa kritikoki aukeratzen eta interpretatzen du, eta azalpen zientifikoak eta bestelakoak behar bezala bereizten ditu.
- Testu zientifiko bat oinarri hartuta, informazioa atera eta interpretatu, eta zorrotztasunez eta zehaztasunez argudiatzen du, terminologia egokia erabiliz.
- Adierazteko denetarioko bitartekoak eta formatuak erabiltzen ditu, digitalak, idatziak edo ahozkoak.
- Hizkuntza zientifiko egokia eta koherentea erabiltzen du, ahoz zein idatziz, eta argi eta ordenan hitz egiten du.
- Diseinatutako esperimenterako egokiak diren gailuak eta teknika esperimentalak erabiltzen ditu.
- Magnitudeak neurtzen ditu eta unitate egokitan adierazten ditu.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia batzuk ezagutzen ditu eta behar bezala erabiltzen ditu; adibidez, Internet, sare sozialak, telefono mugikorra, GPSa, etab.

5. Zientziak gaur-gaurko gai batean zer ekarpen egin duen ikertzea, zientziak teknologia-aurrerapenekin duen harremana balioetsiz, eta modu kolektiboan eraikitzen dela jakitea, haiei esker bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobek direla aitortuz, eta haien muguz ohartzuz.

6. Biziaz jatorria edo Lurraren eraketa moduko gaiei emandako azalpen zientifikoak aztertzea, arrazoibide hipotetiko-deduktiboa azpimarratuz, bai eta frogen balioa eta gizartearen eragina ere, iritzietan edo sinesmenetan oinarritutakoetatik bereiziz.

7. Zientziak eta teknologiak osasunaren arloan egindako zenbait ekarpen eta haiek abiarazteko orduan testuinguru politiko-sozialak izandako garrantzia aztertzea, ekonomiaren eta gizartearen aldetik dauden abantailak eta oztopoak kontuan hartuz, eta medikuntza zientifikoa bereiziz bestelako jardun batzuetatik.

- Lanak autonomiaz planifikatzen ditu.
- Laborategiko segurtasun-arauak ezagutzen eta errespetatzen ditu, eta erabilitako tresnak eta materiala zaintzen ditu.
- Sortutako hondakinen kudeaketari buruzko arauak betetzen ditu.
- Zientziaren ekarpenak kritikoki aztertzen ditu eta izaera zientifikoko egoera eztabaidagarrien aurrean erabaki arrazoituak hartzen ditu.
- Jarduera zientifikoaren sormena, lorpenak eta gizarte-garrantzia balioesten ditu.
- Azalpen zientifikoak eta ez direnak behar bezala bereizten ditu.
- Zientziak gure gizarteetan duen zeregina eta garapen jasangarrirantz aurrera egiteko soluzioak emanez ongizatea hobetzen nola laguntzen duen argudiatzen du.
- Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarritzko kulturaren atal bat dela.
- Badaki lan zientifikoak frogak eta ebidentziak dituela oinarri, eta ez iritziak edo sinesmenak.
- Zenbait azalpen zientifiko onartzeko edo baztertzeke, testuinguru sozialaren eragina aitortzen du.
- Badaki beharrezkoa dela zientziaren eta teknologiaren arteko erlazioa, biek aurrera egiteko.
- Gizateriak bere jatorriari buruz planteatu dituen oinarritzko problemen azalpen zientifikoak eta ez direnak bereizten ditu.
- Osasun-arazoei irtenbidea emateko asmoz, zientziak eta teknologiak egindako ekarpenen abantailak eta oztopoak adierazten ditu (adibidez, sendagaiak, transplanteak, etab.).
- Badaki testuinguru soziala garrantzitsua dela zenbait ekarpen praktikan jartzeko; adibidez, Hirugarren Munduan sendagaiak eskuragarri izatea, industria farmazeutikoaren interes ekonomikoak sendagaiak aurkitzeko, garatzeko eta merkaturatzeko, etab.
- Osasuna eta sendagaiak arrazoiz erabili beharra arrazoitzen du.
- Medikuntza zientifikoaren berdinak ez diren praktikak badaudela ezartzen du, eta haien

<p>8. Informazioko, komunikazioko, aisiako eta sormeneko tresna teknologiko batzuek zer erabilera praktiko eta zer ondorio indibidual eta sozial dituzten ohartzea, kontsumo-ohituretan eta gizarte-harremanetan duten eragina balioetsiz.</p>	<p>oinarri zientifikoa eta berekin dituzten arriskuak balioesten ditu.</p> <ul style="list-style-type: none">• Komunikazioaren iraultza teknologikoaren zenbait elementu eta produktu identifikatzen ditu: uhinak, kableak, zuntz optikoa, satelliteak, ADSLa, telefonia mugikorra, GPSa, ordenagailua, tableta, smartphonea, Internet, etab.• Eten digitalaren arriskuak bereizten ditu, eta badaki analfabetismo berriak eta desberdintasunak sor ditzakeela, informazioa eta komunikazioa eskura izatearen arabera.• Teknologia berriek gure inguru familiarrean, profesionalean, sozialean eta harremanetako ingurunean eragin dituzten aldaketak kritikoki eta arrazoituz balioesten ditu.• Internetekin lotutako arazoak (delitu informatikoak, pribatutasuna...) zehazten ditu, bai eta aukeran dauden konponbideak ere.• Teknologia berriak arrazoiz eta kritikoki erabiltzearen garrantziaz ohartzen da, bai eta haren erabileraren abantailez eta mugez ere.
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

<p>1. EBALUAZIOA:</p> <ol style="list-style-type: none">1. SARRERA: Zer da zientzia? Zertan datza metodo zientifikoa? Pseudozientziak.2. PLANETAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA: Baliabideak , arriskuak... <p>2. EBALUAZIOA:</p> <ol style="list-style-type: none">3. LABORATEGIA: Arauak eta laborategi teknika ezberdinen ezagutza eta praktika.4. Arazo egoera: Metodo zientifikoa - kristalizazioa <p>3. EBALUAZIOA:</p> <ol style="list-style-type: none">5. GEHIAGO BIZI, HOBETO BIZI.
--

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Metodologia aktiboa eta parte hartzekoa izango da. Irakasleak azalpen teoriko gutxi emango ditu, libururik jarraitu gabe, eta gaiak material desberdinen bidez landuko direlarik: egunkarietatik edo aldizkarietatik hartutako artikulak, sareko baliabide desberdinak (zientziako web-guneak, animazioak, egunkarietako albisteak), noizean behin pelikulak eta dokumentalak ikusiko dira eta hauei buruzko hausnarketa egingo da.

Lanak ere prestatu beharko dituzte, iturri desberdinetako informazioa hartuz, aztertuz eta prestatu, batzutan bukaera aurkezpena izango delarik.

Gizartean zientziarekin erlazionaturik agertzen diren gaiak ikasgai txertatzen saiatuko gara, esaterako, gripea, transplanteak, uholdeak, urakanak eta abar. Horrexegatik edukinak ez dira ordenan ikusiko, baizik eta aktualitatea jarraituz.

Gela arruntaz gain, laborategia eta informatika gela ere askotan erabiliko da.

Ikasgai ikastetxeko proiektu desberdinak txertatuko ditugu:

Agenda 21: Kontsumoaren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Hezkidetzaren (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

Bizikari: Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bitza osasungarria eraikitzen lagunduko da.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako **txantiloia erabiliko da.**

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

Irakurketa plana: Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoak...]

INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].

<p><i>grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</i></p>	
<p>Ikasleek ebaluazioan zehar egindako lanak, lanen aurkezpena, testuen laburpenak, ikusitako dokumental eta pelikulen iruzkinak kontutan hartuko dira ebaluatzeko orduan.</p> <p>Proposatutako lanak txukun egiten duten ikasleei gai horren inguruko azterketarik ez egiteko aukera emango zaie. Bestela ebaluaketa bakoitzeko gutxienez idatzizko azterketa bat egingo da. Azterketa ikasleek landutako definizio eta galdera laburrekin osatuko da.</p> <p>Oso irakasgai praktikoa denez kontuan hartuko da klasera etortzea, ikasleek ikasgelan egiten duten lana ordezkatu ezina izango delako etxerako lanekin.</p> <p>Lanak desberdinak izango dira hiru ebaluazioetan, baina dena den beti mantenduko dira guztietan irizpide minimo batzuk</p>	<p>a) Egindako azterketa guztien batz besteko nota. (%20)</p> <p>b) Lanak. (%70)</p> <p>c) Klaseko jarrera,interesa, etxerako lanak, hautazko ariketak, parte hartzea ... Ikasleek euskaraz hitz egin behar dute bai irakaslearekin bai ikaskideekin, eta ez egiteak eragina izango du notan. (%10)</p> <p>Noten batzbestekoa egin ahal izateko, aurreko atal guztietan gutxieneko nota 3 izan beharko da.</p> <p>Ebaluazio batean, justifikatu gabeko etortze faltak %20ra heltzen badira, ikasleak, ebaluzio jarraia izateko eskubidea galduko du eta berreskurapen frogetara aurkeztean, ebaluatuko zaio.</p>

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

<p>Ebaluazio bakoitzean errekupeazio azterketa bat burutuko da, gainditu gabeko atalak baino ez dira egin beharko. Izan daiteke proba idatzia edota lanak berriro aurkeztu behar izatea, baina beti ebaluazioa bukatu ondoren.</p> <p>Ikasturtearen amaieran, ohiko deialdian proba idatzi bat burutuko du falta zaiona berreskuratzeko.</p> <p>Ez-ohiko deialdian ikasleek ikasturte osoko azterketa global bat egingo dute.</p>

OHARRAK / OBSERVACIONES

--	--